



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailak 20

Vitoria-Gasteiz, 20 de septiembre de 2016

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

EUSKO JAURLARITZAK ZAZPI MILIOI EUROREN LAGUNTZAK ONARTU DITU ARRANTZAREN ETA AKUIKULTURAREN MODERNIZAZIORAKO

- Batez ere arrantza jarduera iraunkorretarako eta ekoizpen eta merkaturatze planetarako
- Helburua da aurrera egitea sektore modernizatua eta biodibertsitatearekiko errespetutsua lortzeko bidean

Irailaren 20ko kontseilu bileran, Eusko Jaurlaritzak onarpena eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza eta akuikulturaren sektoreari 2016an emango zaizkion laguntzak iragartzeko Ekomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak emandako Aginduari. **7 milioi euro** bideratuko dira laguntzetara, eta sektorea modernizatzeko inbertsioak egiten dituzten pertsona fisikoentzat zein ondasun erkidego, erakunde profesional edo arrantzale kofradientzat izango dira.

Proposatutako laguntzak

Eusko Jaurlaritzak arrantza eta akuikulturaren sektorea balioesteko eta modernizatzeko lanetan aurrera egiteko garatzen ari den politika irmoaren baitan kokatzen dira Agindu honetan proposatzen diren laguntza lerroak, eta zehazki jarduera hauei egiten die ondo:

- Arrantza iraunkorra: berrikuntza, aholkularitza, arrantzale gazteentzako laguntzak, **hondakinen balioespena, ontzien barruko osasuna eta segurtasuna, biodibertsitatearen babes**a, efizientzia energetikoa, hondakinen bilketa, portuen eta lurreratze tokien hobekuntza, etab..
- Ekoizpen eta merkaturatzeko planak eta neurriak

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita. Eskabidearen inprimakia Arrantza eta Akuikulturako Zuzendaritzaren bulegoetan eta www.nasdap.ejgv.euskadi.net web orrian egongo da eskuragarri.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

1,3 MILIOI BAINO GEHIAGO ABELTZAINZAN ETA NEKAZARITZAN I+G+BKO JARDUERAK BULTZATZEKO

- **Gobernuak enpresa, talde eta ikerketa zentroi zuzendutako laguntzak onartu ditu**
- **Helburua da efizientzia areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde iraunkorren laguntzea eta lankidetzaren sustatzea.**

Eusko Jaurlaritzak onartu du Euskal Herriko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikerketak, garapenak eta berrikuntzak egiteko 2016an emango diren laguntzen deialdiaren oinarriak arautzeko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak emandako Agindua, laguntza horietara 1.350.700 euro bideratuta.

Eusko Jaurlaritzaren planteamendu estrategikoekin bat etorriz, laguntza hauen helburua da sektore horietako ikerketak, garapenak eta berrikuntzak bultzatzea eta suspertzea, sektore horietan efizientzia eta lehiakortasuna areagotzeko, hazkunde iraunkorren laguntzeko eta lankidetzaren sustatzeko.

Diru kopurua

Aurreikusitako 1.350.700 euroak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura izango dira eta honela banatuko dira:

- 1.190.000 euro funtsezko ikerketen, industri ikerketen eta garapen esperimentalen proiektuetarako.
- 28.000 euro I+G+Bko proiektuei buruzko bideragarritasun teknikoaren ikerketetarako.
- 132.525 euro antolaketa alorreko berrikuntzarako.

Norentzat

Laguntzen onuradunak nekazaritzaren edo arrantzaren sektorekoak izango dira, eta hauek izan daitezke:

- funtsezko ikerketen, industria ikerketen eta garapen esperimentalen proiektuei eta I+G+Bko proiektuei buruzko bideragarritasun teknikoaren ikerketei zuzendutako laguntzetarako: edozein neurritako enpresak, elkarteak eta fundazioak, pertsona fisikoen edo nortasun juridikorik gabeko pertsona juridiko pribatuen taldeak, ondasun erkidegoak, zentro teknologikoak, eta ikerketarako eta ezagutzen zabalkunderako erakundeak.

- Antolaketa alorreko berrikuntzari zuzendutako laguntzetarako: edozein neurritako enpresak, elkarteak eta fundazioak, pertsona fisikoen edo nortasun juridikorik gabeko pertsona juridiko pribatuen taldeak eta ondasun erkidegoak.

Laguntza eskabideen formularioen ereduak web helbide honetan egongo dira eskuragai: <http://www.euskadi.eus> eta Agindu honen I. Eranskinean argitaratuko dira. Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

EUSKO JAURLARITZAK 755.000 EUROREN LAGUNTZAK IRAGARRI DITU LEHEN SEKTOREKO ELKARTE PROFESIONALENTZAT

- “ELKARTEAK” programaren barruan kokatzen dira
- Ekitaldi honetarako 755.000 euro baino gehiagoren laguntzak izango dira.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaien sektoreetako elkarte eta federazio profesionalentzako laguntzak onartu ditu, “Elkarteak” programaren baitan.

Ekitaldi honetarako 755.373 euro bideratuko dira laguntzetara, eta honela banatuko dira:

- Nekazaritzaren sektorerako, 475.000 euro
- Elikagaien sektorerako: 100.000 euro
- Arrantzaren sektorerako: 180.373 euro

Laguntza hauen onuradunak izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaien sektoreetako profesionalen eta enpresarien elkarteak eta federazioak. Arrantzaren sektorearen barruan, aisialdiko arrantzaren elkarte eta federazioak sartzen dira. Ezin izango dira laguntzen onuradunak izan Lurralde Historiko bat baino gutxiago hartzen duten elkarteak edo federazioak, arrantza sektoreari dagozkionak izan ezik.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita. Eskabideak hona bidaliko dira:

- Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaritza, nekazaritza sektorerako.
- Elikagaien Kalitate eta Industrien zuzendaritza, elikagaien sektorerako.
- Arrantza eta Akuikulturako Zuzendaritza, arrantza sektorerako.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

2 MILIOI IKERBASQUE RESEARCH ASSOCIATE PROGRAMA BERRIA EZARTZEKO

- **Ikerbasqueren programa berriak Euskadin diharduten ikertzaile gazteen ibilbidea kontsolidatzea du helburu, kontratuen bidez.**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du Ikerbasque Zientziarako Euskal Fundazioari bi milioi euroko diru-laguntza zuzena ematea, honek bere programa berria abian jarri dezan: *Ikerbasque Research Associate*.

Ikerbasque Fundazioak ikerketarako talentua erakartzeko egin ohi duen lana, bi programaren inguruan burutu izan da orain arte: *Ikerbasque Reseach Fellow* programa batetik (ikertzaile gazteei zuzendua), eta *Ikerbasque Research Professor* bestetik (ikertzaile kontsolidatuentzako). *Research Associate* programa berria, ordea, dagoeneko ezarrita dauden beste bi horien arteko zubi izango da. Izan ere, berariaz sortua izan da *Research Fellows* ikertzaile gazteei –dagoeneko 5 urteko lanean euren ezagutza eta balioa erakutsi baitute Euskadiko ikerketa zentroetan- Euskadin epe luzeagoz ikertzen jarraitzeko aukera emateko. Era honetan, ekimen berriak bi ekarpen nagusi egiten ditu: batetik, ikertzaile gazteen ibilbidea egonkortu eta kontsolidatzen laguntzen du, eta bestetik, Euskadiko ikerketa-karrera osatzen du.

Kanpo ebaluazioak

Horretarako, *Research Fellow* ikertzaile gazteei kontratuaren laugarren urtean ebaluazio batera aurkezteko aukera eskainiko die ekimen berriak. Kanpo ebaluazioa izango da, Ikerbasqueko batzorde zientifikoak kudeatutakoa. Ebaluazioa gainditzen duten ikertzaileek *Research Associate* erako kontratua lortuko dute, eta hiru urtez behin beste bi ebaluazio gainditzen badituzte, Euskadin era iraunkorren lanean diharduten *Research Professor* edo ikertzaile kontsolidatuen kategoriara igaroko dira. Honela, Ikerbasquek bikaintasun irizpide jarraituz ikertzaile karrera Euskadin egiteko dagoen eskaintza profesionala osatuko du.

Research Associate izateko hautagaien profila 10 urte inguruko bikaintasunezko ikerketa-esperientzia duen ikertzailearena da, eta independentzia zientifiko eta ikerketa-taldeak lideratzeko gaitasuna duena. Egun, doktorego ondoko 10 urte inguruko esperientzia duten 60 ikertzaile gazte (*Research Fellow*) ditu kontratatutak Ikerbasquek, 13 herrialdeetatik etorritakoak eta gehienak (% 44) zientzia esperimentaletan trebatutakoak. Ikertzaile hauen % 17 gizarte eta giza zientzietako espezialistak dira, % 12 teknologia eta matematikako adituak, eta gainerako % 27 bizitza eta medikuntza zientzietakoak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

500.000 EURO DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER FUNDAZIOARI

- **DIPC-en Kalkulu Zentroarentzako sala berria eraiki eta ekipamendu berria eskuratzera bideratuko da laguntza.**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du Donostia International Physics Center (DIPC) Fundazioari 500.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea. Laguntza hori DIPCCen Kalkulu Zentroaren sala berria eraiki eta ekipamendu berria eskuratzera bideratuko da.

Donostia International Physics Center-ek aurreikusia du bere Kalkulu Zentroa hornitzeko superkonputazioko ekipo berriak eskuratzea. Horretarako, beharrezko gertatzen da ekipamendu hori baldintza fisiko egokienetan hartuko duen sala berria eraikitzea. Hala nola, intsonorizazio egokia eskainiko duten zoru, horma eta sabaiekin, DIPCCen gainerako egoitzetatik ondo isolatua, edo hozte-sistema aproposarekin. Alegia, punta-puntako konputazio-baliabideek funtzionamendu hobe ezina izan dezaten beharrezko diren baldintzak. Lan hauekin, gainera, DIPCCen konputazio-baliabideentzako espazioa nabarmen handituko du.

Superkonputaziorako ekipoak berrituta eta hauek hartuko dituzten instalazioak hobetuta, DIPCCen Kalkulu Zentroak errendimendu altuko konputazioan (HPC edo *High Performance Computing*) erreferentziazko izaten jarraituko du Euskadin, honek euskal komunitate zientifikoarentzat nahiz Euskadi guztiarentzat esan nahi duen onurarekin.

DIPCCen konputazio-azpiegitura egun 140 ikertzailek baino gehiagok erabiltzen dute, DIPCCekoek bertakoak nahiz beste ikerketa zentro batzuetakoek (UPV/EHU, Materialen Fisika Zentroa, CICnanoGUNE edo Ikerbasque).

DIPCCen Kalkulu Zentroa

DIPCCen Kalkulu Zentroa funtsezko erreminta da DIPCCeko bertako ikertzaileek nahiz inguruneko beste ikertzaile talde batzuek burutzen duten bikaintasunezko ikerketarentzat. Fisika eta Kimika konputazionala Euskadiko ikerketa-lerrorik sendoenetako bat da, eta DIPCCen Kalkulu Zentroa funtsezko baliabidea izan da horren garapen maila altua zergatik lortu duen ulertzeko. Bestetik, konputazio-azpiegitura ahaltsu hau talentua erakartzeko foku bat da, bai ikertzaile bisitariarentzat eta baita egonkorrentzat ere (Ikerbasqueren bidez kontratatuak, kasu). Kalkulu Zentroa, errendimendu altuko konputazioaren garapenerako apustu estrategikoa ere bada (HPC edo *High Performance Computing*). HPCan diharduen kalkulu zentro bat, goi mailako baliabide fisikoak, teknikoak eta giza baliabideak dituena, ezagutza teknologikoaren, berrikuntzaren eta formazioaren foku bat ere bada, eta beronen eragina eta garrantziak bere misio nagusia ere gainditu egiten du.

DIPCCen Kalkulu Zentroa lagungarri da ikertzaile kopuru zabal batek punta-puntako ikerketa lerroak gara ditzan nanoelektronikan, polimero eta materia bigunean, nanofotonikan, edo dinamika elektronikoan.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

EUSKAMPUS FUNDAZIOAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA

- **Euskampus Fundazioak Europako Forum bat antolatuko du Donostian datorren urrian**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du Euskampus Fundazioaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artean lankidetzahitzarmen bat izenpetzea Euskampus Agregazioa sustatzeko, Euskal Unibertsitate Sistemaren jarduerak gizartearen eta ekonomiaren arloko eragileekin hedatzeko eta Euskadiren nazioarteko proiektzioa sustatuko duten ikerketa-proiektu bereziak babesteko. Euskampus Fundazioak 150.000 euroko diru-laguntza jasoko du, hitzarmen honi jarraituz eta bertan jasotako helburuak betetzeko.

Hitzarmenean ezartzen diren helburu nagusien artean nabarmentzen da, batetik, Euskampus espazioa osatzen duten erakundeen ahalmenak, eta horien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako edo nazioarteko beste erakunde batzuen artekoak, konektatuko dituzten elkarlan-jarduerak bultzatu eta kudeatzea.

Eta, beste alde batetik, hitzarmenaren helburua da datorren urrian, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak zuzenduta, Europako eragile zientifikoen (unibertsitateak eta ikerketa-zentroak) eta gizartearen eta ekonomiaren arlokoen arteko harremanei buruzko Europako Forum bat antolatzea Donostian, arreta berezia eskainita Euskadi-Akitania euroeskualdeari.

Euskampus Fundazioa

Euskampus Fundazioaren xedea da UPV/EHU modernizatzeko eta nazioartekotzeko prozesua azkartu eta indartuko duten jarduerak diseinatzea, koordinatzea eta betearaztea, kide guztien lankidetzarekin eta betiere Euskampus proiektua garatuz. Euskampus Fundazioaren asmoa, beraz, Euskadiko I+G+b dinamizatzeko eta nazioartekotzeko elementu erabakigarria izatea da, eta, horrez gain, gizarte-erantzukizuneko eta lurraldean integratzeko bokazio argia du. Bordeleko Unibertsitatea, bere IdEX bikaintasun-ekimenarekin, Fundazioaren Europako kide estrategikoa da, bai eta nazioartekotze-prozesuko funtsezko elementuetako bat ere; izan ere, jarduera askotan parte hartzen du bikaintasunaren Euroeskualdeko Campusa elkarrekin eraikitzeko xedez.

UPV/EHU, Tecnalia eta DIPC dira Euskampus Fundazioa sortu zuten kideak, eta Fundazioko kide dira Ormazabal Corporate Technology, CAF, Kutxabank eta Ikerbasque ere.

Segurtasuna

LANKIDETZA HITZARMENA, BILBOKO UDALA, SEGURTASUN SAILAK DUEN TETRA KOMUNIKAZIO-SAREAN SARTU ETA “DATAPOL” DATU TELEMATIKOEN HARTU- EMANA IZATEKO

Gobernu Batzordeak bere oniritzia eman du 2016/09/20ko bileran, Euskadiko Autonomía Erkidegoko eta Bilboko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenari, non segurtasun komunikazio-sarearen barruan, Enbor- Sarean, Bilboko Udalaren Tetra sarea integratzen den eta Datapol konexio bidezko polizia-informazioa duten datu telematikoak elkarri ematen diren. Lankidetzaren hitzarmen honen helburua da, Ertzaintza eta Udaltzaingoen arteko polizia-lankidetzaren eta koordinazioaren bultzatzen dituzten mekanismoak bultzatzea, baita iharduera bikoitzak ekiditea eta polizia-kidego ezberdinen arteko baliabide operatiboak hobetzea ere.

Alde batetik, Euskadiko Autonomía Erkidegoko Administrazioa, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren bidez, Enbor-Sarea komunikazio-sarearen, Tetra irrati mugikorren sare digitalaren titularra da. Bestetik, Bilboko Udalak, berezkoa duen Tetra komunikazio sarea erabiltzen eta gessionatzen du udalekoak diren segurtasuneko eta larrialdietako agentzietara ahots eta datu zerbitzuak emateko.

Bi sareak frekuentzi banda berdinak erabiltzen dituztelako eta sarbiderako teknologia bera dutelako, bi aldeek komenigarria ikusi dute bertan integratzea, Bilbo bertan zein gainontzeko lekuetan komunikatzeko duten estaldura eta ahalmena zabaldu asmoz. Hori dena, Udalak dituen hainbat hornidura eta kudeaketa funtzioen edota ahots eta datuen zerbitzuen kontrola galdu gabe.

Enbor-Sarea segurtasun komunikazio Sarean integratzeak bi instituzioen arteko komunikazio hornidura eta ahalmena hobetuko ditu.

Kolaborazio eta integrazio arlo honetan, Datapol izeneko kanalen bitartez, dauden polizia-fitxategietako datuen hartu-emana gehitzeko baliogarria izango da, horrela, bi polizia-kidegoen arteko informazioa trukatu ahal izango da.

Faktore guzti hauek izan dira kontuan Segurtasun Sailak baieztatu txostena emateko, eta baita gaurko egunez Gobernu Batzordeak lankidetzaren hitzarmenaren bultzatzea baimentzeko ere.

Osasuna

OSASUN SAILAK 2,6 MILIOI EURO BIDERATU DITU LAGUNTZETAN, ADIKZIOEN ARLOKO ETA OSASUNA SUSTATZEKO HAINBAT JARDUKETA GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak onartu duen Aginduaren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak **2.615.613 milioi euro** bideratu ditu aurten, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten toki-erakundeentzako eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzen kontzeptupean, prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta **adikzioen arloan** prebentzio-proiektuak eta arriskuak eta kalteak murriztekoak egiteko. Laguntzak, halaber, hainbat toki-erakundetako adikzioen prebentzio komunitarioko lantalde teknikoak mantentzera bideratuko dira.

Toki-esparruan eta sektore sanitarioaz bestelakoetatik egiten diren jarduketetan osasuna sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Mendekotasunen VI. Planaren jarduketa-ildoetan hobekien kokatuta dauden programak eta proiektuak mantentzea, behar berriak erakustea eta horiei erantzungo dieten proiektu berriak bultzatzea eta programa eta proiektuak hobetzen laguntzea helburu duten laguntza hauek deitu ditu **Osasun Sailak**.

Laguntza hauek Euskal Autonomia Erkidegoan adikzioen arloan egiten ari den lanaren oinarrietako bat dira. Izan ere, erakundearteko koordinazioa eta lankidetzaren eta hirugarren sektorearekiko eta kolektiboekiko elkarlana funtsezkoak dira eginkizun horretan.

Zehazki, laguntza ekonomikoa honela banakatzen da diru-laguntzen hiru ildoetan:

- ✓ Adikzioen prebentzio komunitarioko lantalde teknikoak sortzea eta mantentzea: 1.172.985 euro
- ✓ Tokiko planei atxikitako adikzioen prebentzio komunitarioko programak eta jarduketa-esparru horretan jokabide osasungarriak sustatzekoak garatzea: 561.215 euro
- ✓ Prebentzio-proiektuak eta arriskuak eta kalteak murriztekoak eta adikzioen esparruan jokabide osasungarriak sustatzekoak egitea: 881.413 euro

Hortaz, **Eusko Jaurlaritzak eta Osasun Sailak eutsi egiten diote adikzioen fenomenoari esparru komunitariotik aurre egin eta erantzuteko konpromisoari, 2013-2020ko Osasun Planean** jasotzen den bezalaxe. Plan horrek, hain zuzen ere, lehenetsutako arlotzat jotzen du prebentzio-ekintzak eta bizi-estilo osasungarriak sustatzekoak abian jartzea, sektorearteko lankidetzaren bidez eta toki-esparruan eta komunitarioan lan eginez, eta oso bereziki nabarmentzen ditu tabakoaren, alkoholaren eta beste substantzia batzuen presentzia eta eskaintzak murriztera bideratutakoak.

Ingurumena eta Lurralde Politika

GOBERNU KONTSEILUAK “2020RAKO EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDERAKO PROGRAMA” ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaur goizean onartu du Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak prestatutako “2020rako Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berderako programa”. Programa horren bidez, erosketa publikoetan hautatzen diren aukerek ingurumen-inpaktu txikiagoa izatea sustatuko da, betiere edozein produktuk bete beharreko ingurumen-araudian finkatutako obligazioez harantzago, eta funts publikoen erabilera eraginkorra ziurtatuta.

Ana Oregi sailburuak adierazi duenez, “Eusko Jaurlaritzak, Europar Batasunaren bidetik, aitortzen du kontratazio publikoak garrantzi handia duela aldaketa-tresna gisa. Hori dela eta, 2004tik aurrera, bere plan estrategikoetan eta erabaki espezifikoetan ingurumen arloko kontratazio publiko arduratsua txertatu du.”

Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko Ingurumeneko Esparru Programak jauzi kualitatibo handia planteatu zuen ingurumen-politikan; izatez ingurumena oparotasun ekonomikoarekin eta sozialarekin lotu zuen, eta, horretarako, ekonomia lehiakor, berde eta berritzailea sustatu zuen, baliabideen kontsumo efizientea eta karbono kontsumo txikia kontuan hartuko zuena.

Ana Oregiren iritziz, “2020ko Ingurumeneko Esparru Programaren honako helburu estrategiko hauekin, batik bat, lotzen da Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berderako programa: ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono gutxiko, eta baliabideen erabileran efiziente baterantz aurrera egitea; lurraldearen iraunkortasuna gehitzea; eta politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuta”.

“Administrazio publikoak ingurumen-balio ezagunak dituzten produktuak eta zerbitzuak eskatzea indar handiko tresna da sektore pribatuak produktu eta zerbitzu horiek eskaini ditzan eta, hartara, ingurumena errespetatuko duten merkatuak sor daitezen” erantsi du Oregi sailburuak.

2020rako Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berderako programak – Eusko Jaurlaritzak onartzen duen ezaugarri horietako bigarrenak– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak aintzat hartzeko esparru egokia ezartzen du. Jauzi handia da, euskal administrazioen parte-hartzea sustatzen baitu atxikipen boluntarioaren bidez (Eusko Jaurlaritzarena –sailena eta erakunde atxikiena–, foru aldundiena –sailena eta foru-sektore publikoko erakunde atxikiena– eta toki-erakundeena –udalena, mankomunitateena...–).

Helburuak

Programak ezartzen duenez, erosketa eta kontratazio publiko berdean konprometitu dagoen administrazio parte-hartzaile bakoitzak bi helburu mota lortu behar du: erosketa eta kontratazio publiko berdea erakundearen barne-kudeaketan instituzionalizatzeko prozesuaren arloko helburuak, eta erakunde bakoitzaren kontratazioetako emaitzen edo ingurumen-onura efektiboaren arloko helburuak.

Horretarako, 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programak bost ildo estrategiko finkatu ditu: edukia eta ezartze-tresnak; kontratazio-prozeduretan barnean hartzea; prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa; merkatuarekin koordinatzea; Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana.

Laster eratuko da Planean aurreikusten den Erosketa Publiko Berderako Sailarteko Trakzio Taldea. Hasiera batean Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko sail hauek hartuko dute parte: Ogasuna eta Finantzak; Ingurumen eta Lurralde Politika; Enplegu eta Gizarte Politika; Segurtasuna; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura; eta Osasuna. Horiekin batera, honako erakunde hauetako kideek ere hartuko dute parte: Eusko Trenbideak, VISESA, EITB eta OSAKIDETZA, guztiak IHOBE ingurumen-kudeaketako sozietate publikoaren koordinaziopean.

Zer da Erosketa eta Kontratazio Publiko berdea?

Europako Batzordeak honela definitzen du Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea: “agintari publikoek produktuak, zerbitzuak eta obrak erostean edo kontratatzean, biziandian ingurumen-inpaktu txikia izango dutenak erosten saiatzea –inpaktu txikia funtzio primario bera betetzen duten eta horien ordean erosiko lirakekeen beste produktu, zerbitzu eta obrekin alderatuta–”. Public procurement for a better environment, COM (2008) 400

Europako sektore publikoaren gastua 2 bilioi euro inguruko da, Europar Batasunaren Barne Produktu Gordinaren % 19aren baliokidea. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eta berritzailearen irizpideak aplikatuta, administrazio publikoek modu estrategikoan erabil dezakete haien erosketa-ahalmena.

Europar Batasunak zeregin hori onartu, eta arlo horretako konpromisoak hartu ditu bere gain ingurumen-estrategia askotan eta garapen iraunkorreko estrategia askotan. Hartara, erosketa eta kontratazio publikoa Europako ekonomia eraldatzeko eta ekonomia lehiakorragoa eta ingurumenaren arloan arduratsuagoa lortzeko funtsezko tresna bihurtu da. 2020rako Europako Estrategia da berriena.

Onurak

Kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak aplikatzeak, ingurumen-onurak ez ezik, onura ekonomikoak eta sozialak ere ekarriko ditu administrazioarentzat zein sektore pribatuarentzat eta gizartearentzat. Hauek dira administrazioarentzako onurak: gardentasuna eta efizientzia gehitzen du; bere

gain hartutako ingurumen-helburuak lortzeko eta ingurumen-inpaktuak murrizteko aukera ematen du; aurrezpen ekonomikoa sustatzen du, bizialdiko kostuak kontuan izatean; lan-ingurunea osasuntsu mantentzen laguntzen du; eta irudi publikoa hobetzen du eta kontsumitzaile pribatuentzat eredugarria da.

Hauek dira sektore pribatuarentzako onurak: industriarentzako pizgarriak eskaintzen ditu, industria berritzeko eta lehiakorrago izateko; produktuen eta zerbitzuen berrikuntza sustatzen du; tokiko ekonomia sendotzen du; eta produktuetarako eta zerbitzuetarako ingurumen-estandarrak ezartzen laguntzen du. Eta gizartearentzako onurak: produktuen eta ingurumen-teknologiaren prezioa murrizten du; herritarren bizi-kalitatea hobetzen du, ingurumen-inpaktuen murrizketaren ondorioz; ekintzailtza- eta enplegu-lotura ezartzen du; eta ingurumen-gaiekiko kontzientzia gehitzen du.

Europar Batasunaren hazkunde adimentsuago, iraunkorago eta integratzaileago baterako Europa 2020 Estrategiak 7 “ekimen enblematiko” ezartzen ditu lehentasuna duten arloetan. Horien artean daude berrikuntza, industria-politika eta baliabideen erabilera efizientea. "Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa" ekimen enblematikoak hainbat proposamen eta neurri ezartzen ditu, hala nola kontratazio publikoa erabiltzea hazkunde ekonomikoa eta baliabide materialen erabilera banantzeko – produkzio- eta kontsumo-politiken bitartez–, edo ekonomia zirkular bat sustatzea, hau da, hondakinak baliabide bihurtuko diren produkzio- eta kontsumo-sistema bat sustatzea.

Helburu horiek erosketa publikora zuzenduko dira, eta, horretarako, beste kontratazio-ikuspegi batzuk sartuko dira, hala nola “erosketa zirkularra” – zeinean kontratazio-prozesua berriro diseinatuko den materialen zikloa ixteko (esate baterako ordezkatu diren uniformeetatik birziklatutako zuntzen ehuneko jakin bat duen laneko arropa erostea)– edo produktuen erosketatik zerbitzu-kontrataziora pasatzea –baliabideen erabilera efizienteagoa egiteko (esate baterako moketen leasinga, moketak erosi ordez)–.

Eusko Jaurlaritzak ere onartzen du kontratazioak aldaketa-tresna gisa duen garrantzia eta, hartara, 2004tik aurrera kontratazio publiko berdea txertatu du hainbat plan estrategikotan eta erabaki espezifikotan, hala nola 2007-2010 Ingurumeneko Esparru Programan, edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta sektore publikoaren kontratazioan gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta bestelako politika publikoak txertatzeari buruzko 2008ko Gobernu Kontseiluaren erabakian, edo 2012-2016 gobernu-programan.

Ildo beretik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak, IHOBE sozietate publikoaren bidez, 2005etik aurrera, tresnak eta laguntzak eskaintzen dizkie euskal administrazioei kontratazioan ingurumen-ikuspegia txerta dezaten eta, horrela, konpromiso politikoei erantzun diezaieten.

2011. urtean onartu zen Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako 1. Programa (2011-2014). Programa horrek bidea zabaltzen lagundu zuen, eta lagungarria izan zen erosketa eta kontratazio publiko berdea hizkuntza eta

diskurtso politikoan zabaltzeko. Programak helburu argiak ezartzen ditu lortu nahi diren ingurumen-onura mailei dagokienez, eta erreferentziazko irizpideak ezartzearekin lortutako aurrerapen teknikoa ere nabarmentzen da (Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua). Maila kuantitatiboetan, une honetan Eusko Jaurlaritzaren erosketa eta kontratazio berdearen maila globala % 30 ingurukoa da, eta balio hori ez da txikia kontuan hartzen badugu kontratazio orotan ezin dela ingurumen-onurarik lortu eta testuinguru ekonomiko zailean gaudela.

Ingurumena eta Lurralde Politika

KONTSEILU GOBERNUAK PREMIAZKOTZAT JO DU “LA MARDONAKO (GALDAMES) BILTEGIRAKO LEHEN MAILAKO SAREKO HORNIKUNTZA-PROIEKTURAKO” BEHARREZKO ONDASUNAK OKUPATZEA

Kontseilu Gobernuak premiazkotzat jo du, La Mardonako (Galdames) biltegirako lehen mailako sareko hornikuntza-proiektua gauzatzeko behar diren zehaztutako eta bereizitako ondasunak eta eskubideak Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoak okupatzea, nahitaez desjabetzeko.

Desarrollo Económico y Competitividad

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA AYUDAS POR SIETE MILLONES DE EUROS PARA LA MODERNIZACIÓN PESQUERA Y ACUÍCOLA

- **Destinadas principalmente a actividades de pesca sostenible y a planes de producción y comercialización**
- **El objetivo es avanzar en la consecución de un sector modernizado y respetuoso con la biodiversidad**

El Gobierno vasco ha aprobado, en su reunión de consejo del 20 de septiembre, la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad por la que se convocan para el ejercicio 2016 las ayudas al sector pesquero y acuícola de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Dotadas con **7 millones de euros**, están destinadas tanto a las personas físicas como a comunidades de bienes, organizaciones profesionales o cofradías de pescadores que realicen inversiones en la modernización del sector.

Ayudas propuestas

Enmarcadas en la decidida política que el Gobierno vasco está desarrollando para avanzar en la valorización y modernización de un sector pesquero y acuícola sostenible, las líneas de ayudas propuestas en esta Orden benefician en concreto a las actividades de:

- Pesca sostenible: innovación, asesoramiento, ayudas a jóvenes pescadores, **valorización de residuos, salud y seguridad a bordo, protección de la** biodiversidad, eficiencia energética, recogida de residuos, mejora de puertos y lugares de desembarque, etc..
- Planes y medidas de producción y comercialización

El plazo de solicitud será de un mes a partir del día de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. El impreso de solicitud estará disponible en las oficinas de la Dirección de Pesca y Acuicultura y en la página web www.nasdap.ejgv.euskadi.net.

Desarrollo Económico y Competitividad

MÁS DE 1,3 MILLONES PARA INCENTIVAR LAS ACTIVIDADES DE I+D+i EN GANADERÍA Y AGRICULTURA

- **El Gobierno ha aprobado ayudas destinadas a empresas, agrupaciones y centros de investigación.**
- **El objetivo es aumentar la eficiencia, mejorar la competitividad, contribuir al crecimiento sostenible y fomentar la cooperación.**

El Consejo del Gobierno vasco ha aprobado la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad por la que se regulan, para el año 2016, las bases de la convocatoria de ayudas a la investigación, desarrollo e innovación de los sectores agrario, alimentario y pesquero del País Vasco, a la que se destinará la cantidad de 1.350.700 euros.

